DEBAKO UDALA

# BANDOA

**Osasun agintariek agindu bezala, koronabirus -COVID-19**- gaixotasunaren **zabalpena ahalik eta geldoena izan eta osasun zerbitzuen kolapsoa ekiditeko**, martxoaren 13tik aurrera, eta berriro jakinarazi arte, Deba-Itziarren hurrengo neurriak hartu dira:

1. Hezkuntza Sailaren aginduz **Luzaro (Deba-Itziar) eta Mendata eskolak**, eta **haur-eskola itxiko dira**.
2. Udalerriko **kultur zein kirol jarduera guztiak etengo dira,** eta ondorioz**, udal-titulartasuneko honako eraikinak itxiko dira**:

   - Musika eskola
   - Gaztelekua
   - Udal liburutegia
   - KZgunea
   - Kiroldegia
   - Aldats pilotelekua
   - Euskal Jolas pilotalekua
   - Errotazar futbol zelaia
   - Arbil elkartea
   - Eguneko Zentroko taberna
   - Debako aterpetxea
   - Gaztetxea
   - Burugorri ostatua
   - Burugorri eraikina
   - Usoa elkartea
   - Andutz biltokia
   - Zabalsoro pilotalekua
   - Lasturko Presaola pilotalekua
   - Lasturko aterpetxea
   - Lasturko elkartea
   - Lasturko ludoteka
   - Elorriagako Lau Haizeta elkartea
3. Gipuzkoako Urak-en Debako bulegoa itxita egongo da martxoaren 16tik aurrera, 14 egunez.

Herritarrei zentzuz jokatzeko eta hurrengo **gomendioak** jarraitzeko eskatzen diegu:

1. Garbitasun neurriak zorroztu.
2. Eskuak sarritan garbitu.
3. Sukarra, edo arnas sintomak izanez gero ez joan anbulatoriora, etxean geratu eta deitu **900-20-30-50** zenbakira.
4. Mantendu metro bateko tartea, gutxienez, eztul edo doministiku egiten duten edo sukarra duten pertsonengandik.
5. Ez ukitu begiak, sudurra eta ahoa.
6. Etxean eta leku publikoetan eskuekin ukitzen diren gainazalen garbiketa areagotu.
7. Ahal den neurrian jende pilaketak ekidin.

Egoera aldakorra denez, egoerak eskatu ahala beharrezko neurriak hartuko ditu Udalak.

Deban, 2020ko martxoaren 12an

Gilen Garcia Boyra
Alkatea